

HIZTEGI JOLASTIA.



Fitxa teknikoa

Hiztegi Jolastia. Joxan Ormazabal eta Elena Odriozola. Elkar Argitaletxea. Batela Bilduma, 2002

Liburuaren aurkezpena

Jolas hutsa, plazer hutsa. Alfabetoaren inguruko hainbat poemak osatzen dute haurrentzako liburu erakargarri hau. Joxan Ormazabalek oso lan txukuna egin du bere poemetan, batzuetan guztiz lan originala eginez, bestetuetan tradizioaren arrastoari jarraituz, baina betiere poema guztiz jolasti eta. Liburuak bi atal ditu: lehenengoan, *Gure letrak* atalean, alfabetoko letra bakoitzari poema bat eskaini dio egileak; bigarren goan, berriz, atalean, DD, IL, IN, TS, TT eta TX hotsei poema bana idatzi die.

Laura Sagastume, Behinola 8. Zenbakia

Aurkezpen honi erantsi nahi diogu **Elena Odriozolaren** lan bikainaren aipamena. Alfabetoa, eskola, idazketa mostrak... eta jolasa, eta umorea, eta testuaren bide paralelo bat planteatuz, beste alfabeto bat.

Nola kontatu

- Orriz orri, letraz letra poematxoaz poematxo.



Proposamenak luzatuz

- Poemak buruz ikasi, han eta hemen errezitatzeko.
- Ilustrazioei begiratu eta detaileetan erreparatu.

Proposamenak zehazten

- Lehentasuna eman buruz ikasi eta errezitatzeari.
- Letra guztiak gutun-azal batean sartu. Banan bana atera eta ateratzen denean poema errezitatu...
- Liburua esku artean, haur bakoitzak aukeratzen duen poemarekin irakurketa imintzioak egin beste geletan.